Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

1623

6/2009 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzak egindako zenbait hitzarmen -beherago zehaztutakoak- argitaratzea xedatzen duena.

Eusko Jaurlaritzak zenbait hitzarmen sinatu dituenez gero, zabalkunde egokia izan dezaten, honako hau,

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Ondoko hitzarmenen testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea:

– Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioa. I. eranskina.

– Uruguaiko Ekialdeko Errepublikaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzari buruzko harremanen memoranduma, hain zuzen ere gizarte, ekonomia eta kultura arloetako jarduerak sustatzeko. II. eranskina.

– Lankidetza hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Zambranako Udalaren artekoa. Helburua: Zambranako udalerrian babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea. III. eranskina.

– Lankidetza hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren eta Zarauzko udalaren artekoa, Zarautzen Bilbao–Donostia trenbideko 87/240 eta 87/430 KPetan dauden Lakumia eta Biriarteko trenbide-pasaguneak kentzeko. IV. eranskina.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 10a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako
eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

Otras Disposiciones

VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

1623

RESOLUCIÓN 6/2009, de 10 de febrero, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación de los Convenios celebrados por el Gobierno Vasco, que se indican.

Habiéndose suscrito por el Gobierno Vasco varios Convenios, y a los efectos de darles la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto de los siguientes Convenios:

– II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual, que figura como anexo I.

– Memorándum de entendimiento sobre cooperación con el Ministerio de Relaciones Exteriores de la República Oriental de Uruguay para la promoción de acciones en materia cultural, económica, social e industrial, que figura como anexo II.

– Convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Zambrana para la promoción de vivienda de protección oficial en el término municipal de Zambrana, que figura como anexo III.

– Convenio de Colaboración con el Ayuntamiento de Zarautz para la supresión de los pasos a nivel de Lakumia y Biriarte entre los PP.KK. 87/240 y 87/430 de la línea de ferrocarril BIlbao-San Sebastián a su paso por el término municipal de Zarautz, que figura como anexo IV.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de febrero de 2009.

El Director de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

I. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN OTSAILAREN 10EKO 6/2009 EBAZPENARENA

ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU INDARKERIA JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI HARRERA HOBEA EGITEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. AKORDIOA

Vitoria-Gasteizen, 2009ko otsailaren 3an.

BILDU DIRA

Juan José Ibarretxe Markuartu jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa ordezkatuz.

Xabier Agirre López jauna, Arabako Foru Aldundia ordezkatuz.

Jose Luis Bilbao Eguren jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatuz.

Markel Olano Arrese jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatuz.

María Ángeles Montes Álavez andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia ordezkatuz.

Margarita Uria Etxebarria andrea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia ordezkatuz.

Jokin Bildarratz Sorron jauna, Eudel, Euskadiko Udalen Elkartea ordezkatuz.

Juana Balmaseda Ripero andrea, Abokatutzaren Euskal Kontseilua ordezkatuz.

Enrique Tellería Arratibel jauna, Euskal Kontseilu Medikoa ordezkatuz.

AZALDU DUTE

I.– Forma ezberdinak dituen emakumeen aurkako indarkeria emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria dugu eta, horrenbestez, giza eskubideen urraketa nabarmena eta onartezina da.

Emakumeen aurkako indarkeriak emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko ezberdintasun egoeran ditu erroak. Desberdintasun horri, gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, banaketa horrek, emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu.

Emakumeen aurkako indarkeria ezberdintasun horren beste isla bat da, ziurrenera larriena dena, baina horrez gain, gizartea kontrolatzeko funtsezko tresna da, ezberdintasun egoerari eutsi eta iraunarazi egiten baitio.

ANEXO I A LA RESOLUCIÓN 6/2009, DE 10 DE FEBRERO, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

II ACUERDO INTERINSTITUCIONAL PARA LA MEJORA EN LA ATENCIÓN A MUJERES VÍCTIMAS DE MALTRATO EN EL ÁMBITO DOMÉSTICO Y DE VIOLENCIA SEXUAL

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de febrero de 2009.

SE REÚNEN

Excmo. Sr. Juan José Ibarretxe Markuartu, en representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Excmo. Sr. Xabier Agirre López, en representación de la Diputación Foral de Álava.

Excmo. Sr. José Luis Bilbao Eguren, en representación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Excmo. Sr. Markel Olano Arrese, en representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Excma. Sra. María Ángeles Montes Álvaro, en representación de la Fiscalía Superior de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Excma. Sra. Margarita Uria Etxebarria, en representación del Consejo General del Poder Judicial.

Ilmo. Sr. Jokin Bildarratz Sorron, en representación de Eudel - Asociación de Municipios Vascos.

Sra. Juana Balmaseda Ripero, en representación del Consejo Vasco de la Abogacía.

Sr. Enrique Tellería Arratibel, en representación del Consejo Médico Vasco.

EXPONEN

I.– La violencia que en sus diferentes formas se ejerce contra las mujeres atenta gravemente contra su dignidad e integridad física y moral y, en consecuencia, constituye una flagrante e intolerable violación de los derechos humanos.

La violencia contra las mujeres hunde sus raíces en la situación estructural de desigualdad que sufren las mujeres en los diferentes ámbitos de la vida, que se sustenta en el tradicional reparto de papeles y responsabilidades en la sociedad y en la familia en función del sexo, el cual sitúa a las mujeres en una posición subordinada respecto de los hombres.

La violencia contra las mujeres, además de ser una manifestación más de la desigualdad, probablemente la más grave, es también un instrumento de control social clave para que dicha desigualdad se mantenga y tienda a perpetuarse.

II.– Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria emakumeen aurka adin, gizarte talde, kultura eta herrialde guztietan gertatzen diren indarkeriaren bi adierazpen zehatz dira. Gizartearen arazoak dira, oso larriak, herritarrengan eragin handia baitute, sortzen dituzten ondorio fisiko eta psikikoak –bai zuzenean jasaten dituzten emakumeengan, bai zuzenean edo zeharka jasaten dituzten adingabeengan– oso larriak direlako, eta gizarte guztiarentzat kostu sozial eta ekonomiko handia eragiten dutelako.

Eraso horiek, batez ere familia harremanetan edo harreman afektiboen testuinguruan gertatzen dira eta tradizionalki jarrera horien aurrean gizarteak tolerantzia handia erakutsi du. Ezaugarri horiek guztiek, askotan, biktimak babesik gabeko egoeran egotea eragiten dute. Horregatik, funtsezkoa da diziplina anitzeko esku hartze instituzional koordinatua abian jartzea, biktima horiei babes eta arreta osoa bermatzeko, arlo ezberdinetan: osasun arloan, polizialean, judizialean eta sozialean.

III.– Hori horrela, 2001eko urriaren 18an Emakumearen Euskal Erakundeak (Emakunde) bultzatuta, gure erkidegoan Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Erasoak Jasaten dituzten Emakumeei Laguntza Hobea Emateko Erakunde arteko Akordioa sinatu zuten gai hori jorratzen duten erakundeetako agintari gorenek. Akordio horren helburua gai honetan erakundeen arteko koordinazioa hobetzea da, eta Euskal Autonomia Erkidego osoan jarraibide homogeneoak ezartzea, biktimei arreta hobea eskaintzen eta erasotzaileak epailearen esku jartzen laguntzeko.

Halaber, akordio horri jarraiki, eta hartutako konpromisoen jarraipena egiteko eta konpromiso horiek sustatzeko, bi organo sortu ziren: Jarraipen Batzordea eta Erakundeen arteko Talde Teknikoa (hitzarmenaren erakunde sinatzaileetako ordezkari politikoek eta teknikoek osatzen dituzte).

Hitzarmenari esker eta, bereziki, aipatutako erakundeen lanaren poderioz, erakunde sinatzaileek ekintza gehiago egin dituzte beren jarduera-esparruetan, eta jarduera ugari gauzatu dituzte elkarrekin; esaterako, urteko ekintza planak, horien balioespen txostenak, sentsibilizazio kanpainak, informazio liburuxkak, trebakuntza planak, profesionalentzako gidak eta jarduera protokoloak, biktimentzako segurtasun planak, etab.

Labur esanda, erakundeen arteko akordioak ekarri du esku hartze publikoa areagotzea eta erakundeen arteko lankidetza estuagoa eta egonkorragoa izatea, botere

II.– El maltrato en el ámbito doméstico y la violencia sexual son dos formas concretas de violencia contra las mujeres que se producen en todas las edades, grupos sociales, culturas y países y suponen un problema social de enorme magnitud, debido a su gran incidencia en nuestra población, a la gravedad de las secuelas físicas y psíquicas que producen -tanto en las mujeres que las sufren directamente, como en las y los menores que de forma más o menos directa también las padecen-, así como al alto coste social y económico que supone para toda sociedad.

La naturaleza de estas agresiones -fundamentalmente el hecho de que se produzcan mayoritariamente en el contexto de una relación familiar o afectiva y que tradicionalmente haya existido una amplia tolerancia social ante estas conductas, junto al carácter multidimensional de sus efectos- hace que las víctimas, en muchos casos, se encuentren en una especial situación de indefensión. Por ello, es fundamental articular una intervención institucional multidisciplinar y coordinada que les garantice una protección y atención integral en sus vertientes sanitaria, policial, judicial y social.

III.– En este contexto, el 18 de octubre de 2001, promovido por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, fue suscrito en nuestra Comunidad el Acuerdo interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato doméstico y agresiones sexuales por parte de las máximas autoridades de las instituciones implicadas en la materia. Este Acuerdo tiene por objeto mejorar la coordinación interinstitucional en este ámbito y establecer unas pautas de actuación homogéneas en toda la Comunidad Autónoma de Euskadi, que redunden en beneficio de la atención a las víctimas y de la puesta a disposición judicial de la persona agresora.

Asimismo, en virtud de dicho Acuerdo y con el fin de hacer un seguimiento y de impulsar el cumplimiento de los compromisos adquiridos, se crearon dos órganos: la Comisión de Seguimiento y el Grupo Técnico Interinstitucional, compuestos, respectivamente, por representantes de rango político y técnico de las instituciones participantes en el Acuerdo.

La suscripción del Acuerdo y, en particular el trabajo realizado en los mencionados órganos, ha favorecido que, por un lado, se haya producido un incremento significativo de las acciones desarrolladas por cada una de las instituciones firmantes en sus respectivos ámbitos de intervención y, por otro lado, que se haya realizado un importante número de actuaciones de carácter conjunto e interinstitucional como planes de acción anuales y sus correspondientes informes de evaluación, campañas de sensibilización, folletos informativos, planes de formación, guías y protocolos de actuación para profesionales, planes de seguridad para las víctimas, etc.

En suma, el Acuerdo interinstitucional ha propiciado una mayor intervención pública y una más intensa y estable colaboración interinstitucional en un tema en

publiko guztien eta gizarte osoaren konpromisoa eta lana funtsezkoa diren alor honetan.

IV.– Dena den, erakundeen arteko akordioa sinatu zenetik, erakunde publikoek garrantzi handiko eskuhartzeak egin dituzte gai horren inguruan. Hala, nabarmentzekoa da hurrengo lege hauek onartu izana: etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duen uztailaren 31ko 27/2003 Legea, genero indarkeriaren aurkako babes integralerako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa (Estatuan), eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (Euskal Autonomia Erkidegoan). Azken horrek, bere 62. artikuluan, emakumeen aurkako tratu txarrei eta eraso sexualei era eraginkorrean eta koordinatuan aurre egiteko eta biktimei arreta integrala eta kalitatezkoa ematea bermatzeko erakundeen arteko elkarlan akordioak sustatzeko obligazioa ezartzen dio EAEko administrazioari. Horrez gain, legedi berriari egokitzeko xedearekin, arau berriak eta garrantzi handiko beste bitarteko juridiko batzuk ere sortu dira; adibidez Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren babesarekin sortutako genero indarkeriaren aurrean babes osoa emateko neurrien legearen eraginkortasunerako koordinazio-protokoloa eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua, eta Sail horrek berak eta Abokatutzaren Euskal Kontseiluak emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta eraso sexualen biktimei berehalako laguntza juridikoa emateko sinatutako hitzarmena.

Hain zuzen ere, erakundeen arteko 2001eko urriaren 18ko akordioaren edukiak aipatutako lege aldaketek eragindako egoera berrietara egokitzeko sinatu dugu erakundeen arteko II. akordio hau, bai eta ordutik sortutako protokoloak, elkarlanerako hitzarmenak eta beste bitarteko juridiko batzuk osatzeko ere. Akordio hau marko edo esparru modukoa izango da, esku-hartze eremuen arabera garatu, zehaztu eta egokitu egin ahal izango dena.

Adierazitako guztia dela eta, parte hartzen duten alderdiek, dagokien ordezkaritzarekin, zera

HITZARTU DUTE

Lehenengoa.– Akordio honen helburua dela Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen lan egiten duten erakundeen arteko koordinazioa hobetzea, horrela, emakume horiei babes eta arreta osoa bermatzeko arlo ezberdinetan: osasun arloan, polizialean, judizialean eta gizarte arloan.

el que es esencial el compromiso y el trabajo conjunto de todos los poderes públicos y de toda la sociedad en general.

IV.– No obstante, con posterioridad a la firma del Acuerdo interinstitucional se han producido hechos de gran relevancia por lo que se refiere a la intervención pública en esta materia, entre los que cabe destacar la aprobación de leyes como la Ley 27/2003, de 31 de julio, reguladora de la Orden de Protección de las Víctimas de la Violencia Doméstica, la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género o la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, en el ámbito de Estado, y la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que precisamente en su artículo 62 impone a la Administración de la Comunidad Autónoma la obligación del impulsar acuerdos de colaboración interinstitucionales a fin de favorecer una actuación coordinada y eficaz ante los casos de maltrato y agresiones sexuales a mujeres y de garantizar una atención integral y de calidad a las víctimas. Además, con el objetivo de dar respuesta al nuevo contexto legal, se han generado nuevas normas y otro tipo de instrumentos jurídicos de gran trascendencia, como los Protocolos de coordinación para la eficacia de la Ley de medidas de protección integral contra la violencia de género y de la orden de protección de las víctimas de la violencia doméstica, auspiciados por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, o el convenio, suscrito entre este Departamento y el Consejo Vasco de la Abogacía, para la asistencia jurídica inmediata a personas víctimas de delitos de violencia sobre la mujer, de violencia doméstica y de agresiones sexuales en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Precisamente, con el fin de adecuar los contenidos del Acuerdo interinstitucional de 18 de octubre de 2001 a las nuevas circunstancias derivadas fundamentalmente de las modificaciones legales antes referidas y de complementar los protocolos, acuerdos de colaboración y otro tipo de instrumentos jurídicos adoptados desde entonces, se plantea la suscripción de este II Acuerdo interinstitucional, como un acuerdo marco que podrá ser desarrollado, concretado y adecuado en función de los diferentes ámbitos de intervención.

Por todo lo expuesto, las partes intervinientes en la representación que ostentan

ACUERDAN

Primero.– Es objeto del presente Acuerdo mejorar la coordinación entre las instituciones implicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi en la asistencia a las mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual, con el fin de garantizarles una protección y atención integral en sus vertientes sanitaria, policial, judicial y social.

Bigarrena.– Akordioa sinatzen duten erakundeek beren jarduera akordio honen barruan sartu den jarduera protokoloari egokitzeko konpromisoa hartzen dute emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta/edo sexu indarkeriazko egoeretatik etorritako arau-hauste penalak gertatzen diren kasuetan; hori guztia, dagozkien eskumenak eta batez ere epaileen independentzia ahalik eta gehien errespetatuz.

Akordio honi dagokionez, emakumeen aurkako etxeko tratu txartzat hartuko da oraingo edo lehengo familia harreman eta/edo harreman afektibo batean emakume nerabe edo heldu baten aurkako indarkeria fisikoa, psikikoa, sexuala edo beste mota bateko indarkeria erabiltzea, emakumea menderatzeko, azpiratzeko eta erasotzaileak harremanean agintea eta boterea izateko. Tratu txartzat hartuko da horrek guztiak emakumearengan sufrimendua edo kalte fisiko edo psikikoa sortzen badu.

Akordio honi dagokionez, emakumearen aurkako sexu indarkeriatzat hartuko da emakumearen baliozko adostasunik gabe emakume nerabe edo heldu baten aurka egindako edozein sexu jokabide. Adostasunak ez du baliorik izango baldin eta 13 urte baino gutxiagoko adingabe batek edota zentzu murritza duen batek emana bada, buruko ezgaitasuna izatea gehiegikeriak egiteko baliatzen bada, edota biktimaren askatasuna mugatzen duen ageriko nagusitasun egoera batez baliatutako adostasuna dagoen kasuetan; hori guztia, legeria penalean aurreikusitako baldintzetan.

Hirugarrena.– Jarduera protokoloan ezarritako neurriak eta jarraibideak modu eraginkorrean aplikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Presidentetzak jarduera protokoloaren edukiak etxeko tratu txar eta sexu indarkeri egoeretatik sortutako arau-hauste penalak pertsegitzen lan egiten duten epaile guztien artean zabalduko ditu.

Laugarrena.– Jarduera protokoloan ezarritako neurriak eta jarraibideak modu eraginkorrean aplikatzen direla bermatzeko, akordioa sinatzen duten gainerako erakundeek honako jarduerak egingo dituzte, bakoitzak bere eskumenen arloan:

a) Jarduera protokoloaren edukiak akordioa sinatzen duten erakundeen menpekoak diren edo erakunde horiek osatzen dituzten eta etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktimei arreta eskaintzen lan egiten duten profesional guztien artean banatzea. Horretarako, kasu bakoitzerako egokien jotzen diren bitartekoak erabiliko dira: akordioen, jarraibideen, zirkularren, liburuxken eta abarren edukiak igortzea.

b) Etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren kasuetan zer egin jakiteko trebakuntza planak prestatu eta abian jartzea, batez ere erreferentzia eginez jarduera protokoloan agertzen diren jarraibideei. Plan horiek akordioa sinatzen duten erakunde bakoitzaren menpekoak diren edo erakunde horiek osatzen dituzten eta

Segundo.– Las instituciones firmantes se comprometen a adecuar su actuación al Protocolo de actuación que se incorpora al presente Acuerdo en aquellos casos que pudieran ser constitutivos de infracciones penales derivadas de situaciones de maltrato en el ámbito doméstico y/o violencia sexual contra las mujeres; todo ello, dentro del máximo respeto a sus respectivas competencias y, en especial, a la independencia judicial.

A los efectos de presente Acuerdo se considera maltrato contra la mujer en el ámbito doméstico, la violencia física, psíquica, sexual o de otra índole que se ejerce contra una mujer adolescente o adulta en el marco de una relación familiar y/o afectiva actual o previa, con el fin de someterla, dominarla y mantener una posición de autoridad y poder en la relación, y que tenga o pueda tener como resultado sufrimiento o daño en su salud física o psíquica.

A los efectos de presente Acuerdo, se considera violencia sexual contra la mujer cualquier comportamiento de naturaleza sexual cometido contra una mujer adolescente o adulta sin su válido consentimiento, no pudiéndose considerar válido, a efectos de lo anterior, el consentimiento otorgado por menores de 13 años, por personas privadas de sentido o de cuya discapacidad mental se abuse o el consentimiento obtenido prevaliéndose de una situación de superioridad manifiesta que coarte la libertad de la víctima; todo ello en los términos previstos en la legislación penal.

Tercero.– Con el fin de favorecer la efectiva aplicación de las medidas y pautas de actuación contempladas en el Protocolo de actuación, la Presidencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco difundirá los contenidos del Protocolo de actuación entre todas y todos los jueces implicados en la persecución de infracciones penales derivadas de situaciones de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual.

Cuarto.– A los mismos efectos de garantizar la efectiva aplicación de las medidas y pautas de actuación contempladas en el Protocolo de actuación, el resto de instituciones firmantes, en el ámbito de sus competencias, llevarán a cabo las siguientes actuaciones:

a) Difundir los contenidos del Protocolo de actuación entre todas y todos los profesionales que integren o dependan de cada una de las instituciones firmantes y que estén implicados en la atención a víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual. Para ello se utilizarán los medios que se consideren más oportunos en cada caso: remisión del contenido de los Acuerdos, instrucciones, circulares, folletos...

b) Elaborar y poner en marcha planes de formación sobre actuación en casos de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual, haciendo especial referencia a las pautas contenidas en el Protocolo de actuación, dirigidos a las y los profesionales que integren o dependan de cada una de las instituciones firmantes y

aipatutako jokabideen biktimei arreta eskaintzen lan egiten duten profesionalei zuzenduta daude.

c) Akordio honetako edukiak modu eraginkorrean aplikatzen direla bermatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak bideratzea.

Bosgarrena.– Akordioa sinatzen duten erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko eta akordio honetako edukiak gauzatzearen inguruko jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Jarraipen Batzorde bat sortu da eta honako funtzioak izango ditu:

a) Akordioa sinatzen duten erakundeei koordinazioa hobetzeko eta jarduera protokoloan jasota dauden neurriak eta jarraibideak modu eraginkorrean aplikatzen direla bermatzeko komenigarriak direla irizten diren ekintzak proposatzea.

b) Akordioa sinatzen duten erakundeek jarduerak elkarrekin egiteko proposamenak egitea eta baita ere, proposamenak egitea hainbat erakunderi eragiten dien esku hartze eta jarduerak koordinatzeko, betiere akordio honen xede den gaiari dagokionez.

c) Jarduera protokoloaren edukiak akordioa indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen ekimen edo egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea.

d) Bere kabuz edota arau juridiko baten babespean egindako eskariz, akordioaren helburuarekin zerikusia duten txostenak egitea.

e) Akordioaren xedearekin lotutako akordioak adostea.

f) Jarduera protokoloan ezarritako jarraibideak ez betetzearen inguruko kexak jasotzea, eta hala dagokionean, kexa horiei irtenbidea emateko neurriak proposatzea.

g) Erakundeen arteko akordio honen edukiak nola aplikatzen diren analizatzea, eta bereziki, ekitaldi bakoitzaren amaieran akordioaren edukiak zenbateraino bete diren adierazten duen jarraipen eta ebaluazio txosten bat prestatu eta onartzea. Txosten horretan aipatuko dira, alde batetik, akordioa sinatzen duen erakunde bakoitzak jarduera protokoloan ezarritako neurriak eta jarraibideak modu eraginkorrean betetzen direla bermatzeko eta biktimei ematen zaien arreta eta babesa hobetzeko egindako jarduerak, eta bestetik, protokoloa erakunde bakoitzaren esku hartze eremuan zenbateraino betetzen den adierazten duen balorazioa. Horretarako, erakunde bakoitzak Jarraipen Batzordeko idazkaritzara bere jarduera eremuari dagokion jarraipen eta ebaluazio txosten bat igorriko du batzordea bildu baino hilabete lehenago.

h) Bere jarduera eremuan dagozkien beste edozein funtzio.

que estén implicados en la atención a víctimas de estas conductas.

c) Habilitar los recursos humanos, materiales y técnicos necesarios para garantizar la efectiva aplicación de los contenidos del presente Acuerdo.

Quinto.– A los efectos de mejorar la coordinación entre las instituciones firmantes y de hacer un seguimiento y evaluación de la ejecución de los contenidos del presente Acuerdo, se crea una Comisión de Seguimiento, cuyas funciones son las siguientes:

a) Proponer a las instituciones firmantes cuantas acciones se estimen convenientes en orden a mejorar la coordinación y a garantizar la aplicación efectiva de las medidas y pautas recogidas en el Protocolo de actuación.

b) Realizar propuestas de actuación conjunta entre las instituciones firmantes así como de coordinación de las intervenciones y actuaciones que afecten a varias instituciones en relación a la materia objeto del presente Acuerdo.

c) Elaborar propuestas para adaptar los contenidos del Protocolo de actuación a las nuevas iniciativas o circunstancias que puedan surgir durante la vigencia del presente Acuerdo.

d) Emitir por propia iniciativa o bajo petición amparada en una norma jurídica, informes relacionados con el objeto de este Acuerdo.

e) Adoptar acuerdos relacionados con el objeto del Acuerdo.

f) Recibir quejas con relación al incumplimiento de las pautas establecidas en el Protocolo de actuación y, en su caso, proponer medidas para su subsanación.

g) Analizar la aplicación de los contenidos del presente Acuerdo interinstitucional y, en particular, elaborar y aprobar al final de cada ejercicio un informe de seguimiento y evaluación del nivel de cumplimiento de los contenidos del Acuerdo. En el mismo se hará referencia, por una parte, a las acciones desarrolladas por cada una de las instituciones firmantes a los efectos de garantizar la efectiva aplicación de las medidas y pautas contempladas en el Protocolo de actuación y de mejorar la atención y protección a las víctimas, así como una valoración del grado de cumplimiento del Protocolo en el ámbito de intervención de cada una de las instituciones. A tal fin, cada institución remitirá a la Secretaría de la Comisión de Seguimiento un informe de seguimiento y evaluación respecto de su propio ámbito de actuación con un mes de antelación a la celebración de la reunión correspondiente de la Comisión.

h) Cualesquiera otras que le sean atribuidas en su ámbito de actuación.

Jarraipen Batzordearen buru izango da Emakundeko zuzendaria, eta Batzordean sailburuorde edo antzeko kategoria izango dute honako erakundeek:

– Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak.
– Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiak.
– Osasun arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
– Herritarren segurtasun arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
– Justizia arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
– Gizarte zerbitzuen arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
– Gizarte bazterketaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
– Lan arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
– Etxebizitzaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
– Hezkuntzaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailak.
– Arabako Foru Aldundiak.
– Bizkaiko Foru Aldundiak.
– Gipuzkoako Foru Aldundiak.
– Euskadiko Udalen Elkarteak (Eudel).
– Abokatutzaren Euskal Kontseiluak.
– Euskal Kontseilu Medikoak.

Aipatutakoez gainera, batzordean parte hartuko du Emakundeko Idazkaritza Nagusiko titularra den pertsonak eta batzordeko idazkari lanak egingo ditu. Pertsona hori ez dagoenean edo gaixo dagoenean, idazkari lanak batzordekide gazteenak egingo ditu. Horrez gain, Emakundeko idazkari nagusiak ordezkatuko du erakundeko zuzendaria hura ez dagoenean, edo gaixo dagoenean.

Batzordeak osoko bilkuratan jardungo du; eta azpibatzordeetan ere bai, gai espezifikoak aztertzeko. Osoko bilkuran aukeratuko dira azpibatzordeak osatuko dituzten pertsonak. Osoko bilkuretan eta azpibatzordeetan parte hartu ahal izango dute, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe, adituek eta akordio honen helburuak eragiten dien pertsonak biltzen edo ordezkatzen dituzten erakunde eta elkarteetako kideek.

Batzordeak osoko bilkura gutxienez urtean bitan egingo du, ohiko deialdian. Horrez gain, ezohiko bilerak ere egin ahal izango dituzte, batzordeburuak edo partaideen bi herenak eskatuz gero. Kasu horretan, eskaera idatziz egin beharko da landu nahi diren gaien arrazoia ere azalduz. Eskabidea jaso ondorengo hamabost egunetarako egin beharko du batzordeburuak ezohiko osoko bilkurarako deia. Gai zerrendak eskatu diren puntuak jasoko ditu nahitaez; hala ere, batzordeburuak beste puntu batzuk ere sartu ahal izango ditu.

La Comisión de Seguimiento estará presidida por la persona que ocupe la Dirección de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y, además, estará compuesta por representantes con rango de Viceconsejero o Viceconsejera, o similar, de las siguientes instituciones:

– Consejo General del Poder Judicial.
– Fiscalía Superior de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
– Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de sanidad.
– Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de seguridad ciudadana.
– Departamento del Gobierno Vasco competente en materia justicia.
– Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de servicios sociales.
– Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de exclusión social.
– Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de empleo.
– Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de vivienda.
– Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de educación.
– Diputación Foral de Álava.
– Diputación Foral de Bizkaia.
– Diputación Foral de Gipuzkoa.
– Eudel-Asociación de Municipios Vascos.
– Consejo Vasco de la Abogacía.
– Consejo Médico Vasco.

También integrará la Comisión la persona titular de la Secretaría General de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, que realizará las funciones de Secretaría de la Comisión. En su ausencia o enfermedad, asumirá las funciones de Secretaría la o el vocal más joven. Por su parte, será la persona que ocupe la Secretaria General de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer la que sustituya a la Directora o Director del Instituto en caso de ausencia o enfermedad.

La Comisión podrá funcionar en Pleno y en Subcomisiones para el estudio de temas específicos, correspondiendo al Pleno el nombramiento de las personas integrantes del mismo que formarán parte de cada una de las Subcomisiones. Tanto en el Pleno como en las Subcomisiones, podrán participar, con voz y sin voto, personas expertas y miembros de organizaciones y asociaciones que agrupen o representen a personas afectadas por el objeto de este Acuerdo.

El Pleno de la Comisión celebrará al menos dos sesiones ordinarias al año. Además podrá celebrar sesiones extraordinarias a iniciativa de la Presidencia o a petición de dos tercios de sus integrantes. En este caso la petición habrá de realizarse por escrito y contendrá la propuesta motivada de los asuntos a tratar. La Presidencia convocará la reunión extraordinaria dentro de los quince días siguientes al de la solicitud y el orden del día incluirá necesariamente los puntos solicitados, pudiendo la Presidencia adicionar otros.

Batzordeak, bai osoko bilkuretan, bai azpibatzordeetan ere, baliozko osaera izango du bertako kideen gehiengo osoa bertaratzen denean. Horien artean, derrigorrez egon beharko du presidenteak edo, presidentea ez badago, hura ordezkatzen duenak eta idazkariak.

Batzordeak erabakiak bertaratzen diren kideen gehiengo soil bidez hartuko ditu. Berdinketarik egonez gero, presidentearen botoa izango da erabakigarria.

Jarraipen Batzordeko kideek beren funtzioak behar bezala betetzeko beharrezko duten laguntza teknikoa emateko, erakundeen arteko talde tekniko sortuko da. Talde hori osatuko dute akordio hau sinatzen duten erakundeetatik horretarako izendatutako teknikariek. Emakunde ordezkatzen duen pertsonaren koordinaziopean, erakundeen arteko talde teknikoa gutxienez urtean bitan bilduko da proposamenak egiteko. Proposamen horiek Jarraipen Batzordeak aztertu eta hala badagokie onartuko ditu.

Emakundek laguntza teknikoa eta administratiboa eskainiko du Jarraipen Batzordeak eta erakundeen arteko talde teknikoak behar bezala funtziona dezaten.

Seigarrena.– Akordio hau indarrean sartzeak 2001eko urriaren 18an sinatutako erakundeen arteko akordioaren indarraldia amaitzea dakar.

Zazpigarrena.– Akordio honek sinatzen den egunetik 2009ko abenduaren 31 arte izango ditu ondorioak, eta isilbidez luzatuko da, alderdietakoren batek luzatzeari espresuki uko egiten ez badio behintzat.

Eta aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, idazpuruan aipatutako toki eta egunean izenpetzen dute akordio hau.

Juan José Ibarretxe Markuartu jauna,
Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.

Jose Luis Bilbao Eguren jauna,
Bizkaiko diputatu nagusia.

María Ángeles Montes Álvaro andrea,
Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia.

Jokin Bildarratz Sorron jauna,
Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearen presidentea.

Enrique Tellería Arratibel jauna,
Euskal Kontseilu Medikuaren presidentea.

Xabier Agirre López jauna,
Arabako diputatu nagusia.

Markel Olano Arrese jauna,
Gipuzkoako diputatu nagusia.

Margarita Uria Etxebarria andrea,
Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren kidea.

Juana Balmaseda Ripero andrea,
Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren kidea.

La Comisión, tanto en su funcionamiento en Pleno como en Subcomisión, quedará válidamente constituida con la asistencia de la mayoría absoluta de sus miembros, entre quienes debe encontrarse necesariamente la Presidenta o el Presidente, o, en caso de ausencia, quien le sustituya, y la Secretaria o Secretario.

La Comisión adoptará sus acuerdos por mayoría simple de las personas miembros asistentes. En caso de empate decidirá el voto de la Presidencia.

Con el fin de prestar el apoyo técnico necesario a las y los miembros de la Comisión de Seguimiento para el correcto desempeño de sus funciones, se creará un Grupo Técnico Interinstitucional integrado por personas técnicas representantes de las instituciones parte en el presente Acuerdo y designadas por éstas a tal fin. Bajo la coordinación de la persona que represente a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, el Grupo Técnico Interinstitucional se reunirá, al menos, dos veces al año, al objeto de elaborar propuestas para su posterior estudio y, en su caso, aprobación por parte de la Comisión de Seguimiento.

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer prestará la asistencia técnica y administrativa necesaria para el funcionamiento de la Comisión de Seguimiento y del Grupo Técnico Interinstitucional.

Sexto.– La entrada en vigor de este Acuerdo supone el fin de la vigencia del Acuerdo interinstitucional suscrito el 18 de octubre de 2001.

Séptimo.– El presente Acuerdo tendrá efectos desde el día de su firma hasta el 31 de diciembre de 2009 y se prorrogará tácitamente, salvo que medie renuncia expresa de alguna de las partes.

Y prueba de conformidad con cuanto antecede, firman el presente Acuerdo, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Excmo. Sr. Juan José Ibarretxe Markuartu,
Lehendakari del Gobierno Vasco.

Excmo. Sr. José Luis Bilbao Eguren,
Diputado General de Bizkaia.

Excma. Sra. María Ángeles Montes Álvaro,
Fiscal Superior de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Ilmo. Sr. Jokin Bildarratz Sorron,
Presidente de Eudel - Asociación de Municipios Vascos.

Sr. Enrique Tellería Arratibel,
Presidente del Consejo Médico Vasco.

Excmo. Sr. Xabier Agirre López,
Diputado General de Álava.

Excmo. Sr. Markel Olano Arrese,
Diputado General de Gipuzkoa.

Excma. Sra. Margarita Uria Etxebarria,
Vocal del Consejo General del Poder Judicial.

D.ª Juana Balmaseda Ripero,
Vocal del Consejo Vasco de la Abogacía.

JARDUERA PROTOKOLOA

1.– Printzipio orokorrak.

Jarduera protokolo honetan jasotako jarraibideak betetzeko orduan, inplikatutako profesionalek eta erakundeek honako printzipio hauek hartu beharko dituzte kontuan:

a) Laguntza osoa eta pertsonalizatua. Protokolo honetan aipatutako indarkeriaren biktima diren emakumeei eta horien menpekoak diren pertsonei ematen zaien arretak indarkeria egoera bakoitzetik sortzen diren behar ezberdinak hartuko ditu barnean eta, horretarako, kasu bakoitzean gertatzen diren egoera pertsonalen eta sozialen arabera egokienak diren zerbitzuak eta prestazioak jarriko zaizkie eskura.

b) Berdintasuna. Arreta biktima guztiei eskaintzen zaiela bermatu beharko da, honako ezaugarriengatik inor baztertu gabe: egoera zibila, sexu orientazioa, adina, sinesmen edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kide izatea, maila ekonomikoa, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialak, edota beste edozein izaera pertsonal edo sozial. Era berean, beharrezko neurriak hartuko dira beren egoera pertsonal eta sozialarengatik laguntza osoa jasotzeko zailtasunak dituzten biktimen eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko, bereziki, ezgaitasunak dituzten emakumeek eta emakume etorkinek, edozein dela ere beraien egoera administratiboa, eskubide horiek izan ditzaten.

Bereziki, ezgaitasunak dituzten emakumeek dauden informazio eta baliabideak erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko, kasu bakoitzean beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira (laguntzak garraioa erabiltzeko, lagun egiteko, keinu hizkuntzako interpreteak, braillez idatzitako dokumentuak, komunikazio handigarria, etab.). Emakume atzerritarrek hizkuntzaren aldetik izan ditzaketen eragozpenak gainditzeko edo arintzeko neurriak ere hartuko dira. Emakume horiei gogoraraziko zaie erroldatzeko eskaera egitea zein garrantzitsua den babes sozialaren sareko oinarrizko zerbitzuak jaso ahal izateko, eta gomendatuko zaie, etorkinei aholkuak eta orientabidea eskaintzeko Heldu zerbitzuarekin harremanetan jar daitezela.

c) Prebentzioa. Jasotako jarraibide multzoa aplikatuko da biktimen aurkako indarkeria egoerarik errepikatu ez dadin. Biktimak izan daitezke bai emakumeak, bai beren kargu dituzten umeak eta nerabeak edo beraiekin bizi diren eta mendekotasuna duten pertsona helduak.

d) Adingabeen interesen defentsa. Jarduera protokoloa aplikatzeko garaian, biktimek beren kargu dituzten adingabeei arreta eskaintzeko eta horiek babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, adingabeen eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatzeko. Beti kontuan hartu beharko da umeen eta nerabeen interes gorena, haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak xedatzen duen bezala.

PROTOCOLO DE ACTUACIÓN

1.– Principios generales.

En el cumplimiento de las pautas recogidas en el presente Protocolo de actuación, los y las diferentes profesionales e instituciones implicadas deberán atender a los siguientes principios:

a) Asistencia integral y personalizada. La atención a las mujeres víctimas de la violencia a la que se refiere el presente Protocolo y a las personas que dependan de ella dará cobertura a las diferentes necesidades derivadas de la situación de violencia y para ello se les facilitará el acceso a los servicios y prestaciones que resulten más idóneas en función de las circunstancias personales y sociales que concurran en cada caso.

b) Igualdad. La atención deberá garantizarse a todas las víctimas sin discriminación por razón de estado civil, orientación sexual, edad, creencia o ideología, pertenencia a una minoría étnica, nacional o lingüística, nivel económico, así como por razón de discapacidad física, psíquica o sensorial, o cualquier otra condición personal o social. Así mismo, se adoptarán las medidas necesarias para que tengan garantizado el ejercicio efectivo de sus derechos las víctimas cuyas circunstancias personales y sociales supongan una mayor dificultad para el acceso integral a la asistencia y, en especial, las mujeres con discapacidad y las mujeres inmigrantes, con independencia de su situación administrativa.

En particular, para garantizar el derecho de las mujeres con discapacidad al acceso a la información y a los recursos existentes, se deberán realizar las adaptaciones que en cada caso sean necesarias (ayudas para el transporte, acompañamientos, intérpretes de lengua de signos, documentos en braille, comunicación aumentativa, etc.). Igualmente, se adoptarán medidas para superar o mitigar las barreras idiomáticas que puedan tener las mujeres extranjeras. A éstas se les recordará la importancia de que soliciten su empadronamiento como vía para el acceso a las prestaciones básicas de la red de protección social y se les recomendará que contacten con el servicio Heldu de asesoramiento y orientación a la persona inmigrante.

c) Prevención. El conjunto de pautas recogidas se aplicarán con el objeto de evitar que se reproduzcan situaciones de violencia contra las víctimas, tanto en las mujeres como en los niños, niñas y adolescentes a su cargo o en las personas adultas dependientes que formen parte de su unidad convivencial.

d) Defensa del interés de las personas menores de edad. En la aplicación del Protocolo de actuación se adoptarán las medidas necesarias a la atención y protección de las personas menores a su cargo, en orden a garantizar sus derechos, su bienestar y su desarrollo integral, atendiendo, en todo caso, al interés superior de los niños, niñas y adolescentes proclamado en la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de atención y protección a la infancia y la adolescencia.

e) Jabekuntza eta normalizazioa. Kasu bakoitzerako neurri egokiak hartzeko garaian, indarkeriaren biktima diren emakumeek autonomia eta bizimodu normalizatua izan dezaten ahalegina egin beharko da.

f) Eraginkortasuna eta arintasuna. Protokolo honek biltzen dituen jarraibideak aplikatzeko, bermatu beharko da antolaketa eraginkorra eta arina, horrelako egoeretan ohikoa izaten den urgentziak hala eskatuta berehalakotasunarekin jokatzeko.

g) Ahalik eta biktimizazio txikiena. Protokolo honetan aipatzen den indarkeria jasan duten emakumeen bigarren mailako biktimizazioa ahal den neurrian ekidin egingo da eta, hortaz, biktimek profesionalek eta erakundeek esku hartzearen ondorioz jasaten dituzten enbarazuak ahalik eta gehien murriztuko dira.

Hori horrela, protokolo honetan aurreikusitako arreta eskaintzeko jarraibideak eta bideak betetzea eta inplikatutako erakunde ezberdinak koordinatzea profesionalen ardura izango da; biktimek ez dute ardura hori izan behar.

2.– Osasun arloko jarduna.

Osasun arloko langileek tratu txarren edo sexu indarkeriaren biktima izan eta osasun zentro batera jo duen pertsona baten aurrean duten jokabidea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren osasun protokoloan ezarritakoaren araberakoa izango da, bai lehen mailako arretako kontsultetan, kontsulta espezializatuetan edo larrialdi zerbitzuetan, bai alor pribatuan edo publikoan.

Helburuak.

Osasun protokoloaren helburua da EAEn jarduteko jarraibide komunak ezartzea, etxeko tratu txarren, sexu eraso edo gehiegikerien biktima izan eta osasun zentro batera joaten diren emakumeek osasun arreta osoa ziurtatua izan dezaten.

Osasun eta gizarte mailan eta maila judizialean arreta osoa eskaintzeko, osasun arloko langileei erabaki eta prozeduren zuhaitz-diagrama bat eman zaie. Erabaki eta prozedura horiek ahalbidetuko dute, batetik, biktimaren osasuna berreskuratzea eta eskura dauden baliabide sozialez baliatzea, eta bestetik, kasu bakoitzean egokiak diren auzitegiko eta legezko jarduerak egitea.

Jarraibideak.

Osasun arloko langileek kasu bakoitzari dagokion jarraibideari jarraituko diote eta beti kontu handiz ibiliko dira emakumearen intimitatea eta konfidentzialtasuna bermatzeko neurriak hartuz (1).

Etxeko tratu txarrak gertatzen direnerako jarraibideak.

a) Agerikoak diren lesio fisiko edo psikiko akutuak sortzen dituen tratu txarren aurrean nola jokatu.

e) Empoderamiento y normalización. La articulación de las medidas idóneas a cada caso deberá tratar de favorecer la autonomía personal de las mujeres víctimas de la violencia y un modo de vida normalizado.

f) Eficacia y agilidad. En la aplicación de las pautas contenidas en este Protocolo deberá garantizarse una articulación eficaz y ágil con el fin de actuar con la inmediatez requerida por la urgencia propia de la estas situaciones.

g) Mínima victimización. Se tratará de evitar al máximo la victimización secundaria de las mujeres que han sufrido la violencia a que se refiere el presente Protocolo, reduciendo al mínimo las molestias de las víctimas derivadas de las intervenciones de diferentes profesionales e instituciones.

En este sentido, la iniciativa para el cumplimiento de las pautas e itinerarios de atención previstos en el presente Protocolo y para la coordinación de las diferentes instituciones implicadas ha de ser de las y los profesionales, sin que quepa hacer recaer en las víctimas tal responsabilidad.

2.– Actuación en el ámbito sanitario.

La actuación del personal sanitario ante una víctima de maltrato o de violencia sexual que acude a un Centro Sanitario, bien sea a una consulta de Atención Primaria, de Especializada o a un Servicio de Urgencias, tanto en el ámbito privado como público, se ajustará a lo establecido en el Protocolo Sanitario del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Objetivos

El protocolo sanitario tiene como objetivo establecer pautas comunes de actuación en la CAPV para asegurar una atención sanitaria integral a las mujeres víctimas de maltrato doméstico, de agresión o abuso sexuales que acuden a un centro sanitario.

Para facilitar dicha atención integral, tanto en lo sanitario como en lo jurídico y social, se presenta al personal sanitario un árbol de decisiones/procedimientos que permitan recuperar la salud a la víctima y beneficiarse de los recursos sociales disponibles, por un lado, y, por otro, permitan las actuaciones forenses y legales pertinentes.

Pautas de actuación.

El personal sanitario adoptará la pauta de actuación correspondiente extremando siempre las medidas que garanticen al máximo posible la intimidad y confidencialidad de la mujer (1).

Pautas de actuación ante maltrato en el ámbito doméstico.

a) Actuación ante maltrato con lesiones físicas o síquicas agudas evidenciables:

1) Osasun laguntza emango da, dagokion jarduera terapeutikoen planari ekinez. Sexu erasoa edo gehiegikeria gertatuko balitz, beherago azalduko dugun bezala jokatu, auzitegiko medikuari deituz.

2) Laguntza emateaz amaitu eta, hala behar denean, dagokion tratamendua jarri ondoren, protokolo honen II. eranskinean agertzen den lesioen partearen eredua bete beharko da (2).

Lesioen parteak honako atal hauek izango ditu:

• Biktimaren datu pertsonalak (izena, adina, sexua, helbidea,...).
• Laguntza jasotzeko beharra arrazoitzeko gertakarien azalpena biktimaren deklarazioaren arabera (erasoa gertatu den data, ordua eta lekua, erasotzailea nor den baldin badaki eta tratu txar fisiko edo psikiko mota, edo biak).
• Lesioekin zerikusia duten aurrekari pertsonalak.

• Azterketa fisikoa (lesioen deskripzioa: forma, tamaina edo dimentsioak, kokapena eta kolorearen arlo deskriptiboak; argazkiak hartzea ere gomendagarria da, betiere biktimaren aldez aurreko baimenarekin).
• Une horretan duen egoera emozionala.
• Azterketa osagarria, horrelakorik egin bada.
• Diagnostikoa.
• Tratamendua.
• Jarduera plana eta oharrak, biktima kasu bakoitzean nora bidali den zehaztuz (lehen mailako arretara; ospitale batera, ospitalera dezaten; Gizarte Zerbitzuetara edota Biktimari Laguntzeko Zerbitzura).

3) Lesioen partea betetakoan, biktimari irakurriko zaio, eta ahalik eta lasterren emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegira ala guardiako epaitegira bidaliko da, protokolo honen I. eranskinean datorren eredua erabiliz (3).

Lesioen partearen eta «bidalketa idazkiaren» kopia bana igorriko zaizkio tratu txarrak jasan dituen pertsonari, horrek bere segurtasun pertsonala arriskuan jartzen duenean izan ezik; horrelakoetan, konfiantza duen norbait izendatzeko esango zaio, hark dokumentuak jaso ditzan.

Historia klinikoan, lesioen partearen eta «bidalketa idazkiaren» kopia bana gorde beharko da.

4) Laguntza emateko lehenengo jarduera larrialdietako zerbitzuek edo arreta espezializatuko zerbitzuek egin badute, lehen aipatutakoaz gain, aurrerantzean artatuko duen medikuari jarraipen egokia egiteko mediku txostena eman beharko zaio biktimari.

5) Tratu txarren biktimari eskura dituen neurri sozial eta babes neurriei buruzko aholkuak emango zaizkio osasun zentroko bertako baliabideen bidez (Ospitaleko

